



Helduak
Zabaltzen



GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

ASMOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Gizarte zentroak
eraldatzeko tresnak:

ASMOA

NONDIK DATOR GIDA HAU?

Eusko Jaurlaritzak eta Euskofederpenek bultzatutako ekimena da **Helduak Zabaltzen**, eta **adinekoen gizarte zentron** eredu eraldatu eta egokitzeko eta digitalizazioan laguntzeko sortu da. Haren helburu nagusia da zentroak egungo eta etorkizuneko adinekoen beharretara egokitzea.

Proiektuak **esperientzia pilotuak** jarri ditu abian **hiri inguruneetan (Eibarren eta Erandion)** eta **landa inguruneetan (Kanpezun eta Arratzun)**, Euskadin adinekoen gizarte zentron eredu berriak martxan jartzea helburu duen partaidetza prozesua aktibatuzko.

Gida hau lehen ezagutza multzoan sartzen da; horien bidez, proiektuan zehar eskuratutako ezagutza partekatu nahi da. Lehen multzo hori Asmoarena da, eta, horretan, ikasketak eta gogoetak partekatzen dira gizarte zentron eta eraldaketa prozesuko erronka nagusietako batzuen inguruan.

Gida hau egin ahal izateko, lankidetzan aritu dira **Helduak Zabaltzen ekimenaren laguntza jasotzen duten gizarte zentroak, proiektuaren eraldaketa mahaia, BIZAN (Gasteizko adinekoentzako gizarte zentron sarea) eta taldeari lagundu dioten eta proiektuan parte hartu duten pertsona guztiak.**

GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK: ASMOA

Egileak: Nerea Almazán eta Elisa Berrios

Lantaldea: Ainara Tomasena eta Laura Fernández

Irudiak: Goretta TaPuntu

Maketazioa: Matia Comunicación

info@matiafundazioa.eus | <https://helduakzabaltzen.eus/>

© Donostia, 2024
Helduak Zabaltzen



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Material hau Matia Institutuak landu du, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren Helduak Zabaltzen proiektuaren esparruan.

AURKIBIDEA

4

ZER DIRA ADINEKOEN GIZARTE ZENTROAK?

- Definizioak
- Izenak

8

ZER FUNTZIO BETETZEN DITUZTE ZENTRO HORIEK?

- Rol eta funtzio nagusiak
- Beste rol batzuk
- Gizarte zentroen adibideak
- Ariketak

21

ZER ERRESISTENTZIAK ETA BELDURREK OZTOPA DEZAKETE ERALDAKETA?

- Erresistentziak eta beldurrak
- Eta orain?

31

BIBLIOGRAFIA ETA GOMENDATUTAKO IRAKURGAIAK



**Zer dira
adinekoen
gizarte
zentroak?**

Definizioak

Kontzeptu beraren barruan, ia zentro adina izen eta definizio daude.

Martínez, Mañós, Pinazo, Calvo de Mora eta Volpe egileen iritziz (2014), gune hauetan **zahartze aktibora iristeko garapen pertsonala eta soziala** bultzatzen duten **hainbat jarduera** egin ditzakete adinekoek; halaber, **ikasi, parte hartu eta gizarte ekimen solidarioak** sustatzen dituzte, euren ezagutza eta esperientzia komunitatearen zerbitzura jarritz.

Euskofederpenek (2021), berriz, **prebentzio eredu gisa zahartze aktiboa sustatzen duten** jarduerak garatzeko gunetzat hartzen ditu.


Baliabide horiek, bizikidetza sustatzea helburu dutenek, **parte hartzea** eta **gizarteratzea** ahalbidetzen dituzte, eta zahartze aktiboa errazteko bideak garatzen, prestakuntza eta protagonismo soziala bultzatzeko jardueren bidez. Orobat, erreferentziazko lekuak dira, eta **isolamendu eta bakardade egoerak prebenitzen** dituzte; gainera, narriadurari eta mendekotasunari aurrea hartzeko tresna eraginkorrak ere badira.

Bestalde, kontuan izan behar da zentro horiek **herritarrengandik hurbil dauden baliabideak** direla, eta, beraz, gune estrategikoak direla, biztanleria osoarengan zahartze aktiboa sustatzeko.

Ekipamendu publiko mistoak edo publiko-privatuak dira. **Gehienak publikoak eta udalarenak dira, baina kudeaketa mistoa dute**, batez ere adinekoen edo auzotarren elkarte baten zuzendaritza bidez kudeatzen baitira. IMSERSOk 3.770 zentro ditu erregistratuta, eta, horietatik, % 67,58 publikoak dira (IMSERSO, 2021).

Hori dela eta, definizio batzuek alderdi bereizgarri hori nabarmentzen dute: elkarte baten bidez autokudeatutako zentroak, **udalaren lankidetzaren ereduak** dutenak, jardueraz eta bizitzaz beteta daudenak eta herri edo auzo bateko adinekoei zentzuzko harremanak eraikitze, beren kezkek azaltzeko eta ohiko bizitza antolatze aukera ematen dietenak, **eguneroko harremanetan oinarritutako zaintza informaleko sistema bat sortuz** (Helduak Zabaltzen, 2021).

Helduak Zabaltzen proiektuan egindako diagnostiko prozesuetan, definizio ugari daudela egiaztatu da. Eragile eta zentro ugarirekin egin denez definizio ariketa, **gehienek partekatzen dituzten ezaugarri batzuk** identifikatu dira:



Hurbileko baliabideak dira —auzoan edo herrian bertan daude—, eguneroko bizitzan txertatzen dira eta ingurunean aintzat hartzen dira.

Harreman berriak sortzea sustatzen dute, baita pertsona gehiagorekiko interakzioa ere.

Inguruko beste eragile batzuekin aritzen dira, adin desberdinetako jendearekin konektatuz eta ingurunean eta biztanleriaren ongizate orokorrean eragina duten ekintzak eginez, adina edozein dela ere.

Adinekoei zuzenduta daude, batez ere, baina badaude adin guztietako herritarrei irekitako guneak (kafetegia) edo jarduera espezifikoak (belaunaldiartekoak).

Zerbitzu eta jarduerak merkeago eskaintzen dira, administrazio publikoaren laguntzari eta boluntarioen lanari esker.

Herritarren **zahartze aktiboa** erraztea dute helburu.

Parte hartzeko hainbat modu eskaintzen dituzte; besteak beste, jarduerak eta ekintzak kudeatu, planifikatu eta diseinatzeko erabakiak hartzea.

Kasurik gehienetan, adinekoek **autokudeatutako baliabidez** hartzen dira, nahiz eta, eskuarki, **elkarlaneko kudeaketa** baten bidez eta **udalen laguntzarekin** kudeatuak izan. Adinekoei aukera ematen diete euren potentziala aprobetxatzeko, komunitatean parte hartzeko eta euren behar eta interesekin bat datozen ekintzak sortzeko.

Kide izatearen sentimendua sustatzen dute horietan parte hartu ohi dutenengan, beste baliabide publiko batzuek ez bezala.

Izenak

Definizioarekin bezala, hainbat izen daude kontzeptu horri lotuta, lehen aipatutako ezaugarrien arabera: zahar etxeak (edo jubilatuen etxeak), adinekoentzako gizarte zentroak, jubiletxeak, jubilatuen klubak, adinekoen txokoak eta zentro soziokulturalak, besteak beste.

Seguruenik, lehen bi kontzeptuak dira ohikoenak, eta bi-biek aldekoak eta aurkakoak dituzte. Eztabaida horretan, izena ez ezik, atzean dagoen paradigma ere zalantzan jartzen da.

Alde batetik, zahar etxe edo jubilatuen etxe izenak erabat zaharkituta daudela defendatzen dute **gizarte zentro** izenaren alde daudenek. Adierazten dutenez, antzinako zerbait ekartzen dute gogora: gainditu nahi den eta adineko asko bazterten dituen eskaintza paternalista eta infantilizatzaile bati dagokion jarduera zaharkitua (esate baterako, non daude lan arauturik izan ez duten pertsonak?, eta lan arautua izan duten eta erretiratu diren emakumeak?).

Beraz, izena aldatzea proposatzen dute, zentro eredu berri, eguneratu eta askotarikoagoak nahi dituzten pertsonak hainbeste irrikatzen duten aldaketa horren erakusgarri.

Bestalde, **zahar etxe edo jubilatuen etxe** izenen alde daudenek garrantzitsutzat jotzen dute etxe kontzeptuari eustea, erakusteko ez direla baliabide hotz eta urrunak, baizik eta erosotasuna, intimitatea eta komunitatea iradokitzen duten guneak. Ezaugarri horiek balioetsi nahi baitituzte une oro. Pertsona horien aburuz, adinekoen gizarte zentro izenak hoztasuna eta instituzionaltasuna iradokitzen ditu; aitzitik, zahar etxe eta jubilatuen etxe izenek espazio pribatua ekartzen dute gogora; norberaren etxea, alegia, non espero den zaintza jakin batzuk jasotzea eta zenbait erabilera eta premia gehituko zaizkiola.

Helduak Zabaltzenen **adinekoen gizarte zentro** (aurrerantzean, AGZ) erabiltzearen alde egin dugu; izan ere, gure ustez, aukera ematen du zahar edo jubilatuen etxeetatik harago doazen errealitateak jasotzeko eta eztabaida beste ekipamendu batzuetara zabaltzeko, kategoria horrekin bat ez etorri arren, AGZen ezaugarri eta helburu berberak dituztelako.



**Zer funtzio
betetzen
dituzte zentro
horiek?**



Definizioen aniztasuna dela eta, rolak eta funtzioak ere ugariak dira. Ugartasun horrek zaildu egiten du gizarte zentroak **zer diren eta zertarako baliatzen diren** argi eta garbi ikustea gizartean.

Gainera, aurreiritziz betetako irudia zabaltzen du gizartean («*kartetan edo bingoan jokatzera bakarrik joaten dira horra...»*).

Hori dela eta, gizarte zentroyen potentziala eta funtzioak ezkutuan geratzen dira, eta aisialdiko edo jarduerak kontsumitzeko gune izatera mugatzen dira. Hori baino ez dira gizarte zentroak?


Rol eta funtzio nagusiak

Helduak Zabaltzenen egindako hainbat ekintzatan, gizarte zentroen rolak eta funtzioak aztertu ziren. Horri esker, zentrorik gehienek betetzen dituzten rol eta funtzio batzuk detektatu dira.

Beste pertsona batzuekin konektatzeko lekua

AGZen rolei eta funtzioei buruzko diskurtsorik gehientsuenetan, **sozializazio gunetzat hartzeko** joera dago, landa zein hiri eremuetan; beste pertsona batzuekin egoteko, harreman berriak egiteko eta topaketak ahalbidetzeko lekutzat, hain zuzen.

Besteekin elkartzeko aukera hori garrantzitsuagoa eta estrategikoagoa da landa eremuan, gizarte sakabanaketaren ondorioz eta elkartzeko leku informal gutxiago daudelako. Era berean, garrantzi berezia du mugikortasun arazoak eta laguntza premiak dituztenentzat, etxetik hurbil elkartzeko gune bat izatea ahalbidetzen baitie.



Aisialdia, kultura, ikaskuntza eta osasuna sustatzeko aukerak

«Zertarako joaten dira pertsonak gizarte zentroetara?» galdetuz gero, erantzun nagusia hauxe izango da, zalantzarik gabe: jardueretan parte hartzeko. Jarduerak askotarikoak izaten dira, eta aisialdikoak dira, gehienbat; baina, badaude beste hainbat aukera ere: kultura arlokoak (bisitak museoetara, lantegi etnografikoak edo artistikoak...), ikaskuntzakoak (teknologia berriak, hizkuntzak...) eta osasuna sustatzekoak (gimnastika eskolak, pilatesa eta nutrizio edo memoria lantegiak).

Jardueretan parte hartzea da funtziorik agerikoena eta hedatuena; halere, garrantzi handiko beste funtzio batzuk ezkututzen ditu horrek. Beraz, entretenitzeko edo ondo pasatzeko bakarrik joaten dira pertsonak jardueretara? Kultura, ikaskuntza eta osasuna sustatzeaz gain, zer beste gauza lortzen dute jarduera horietan parte hartzen dutenek? Parte hartzeko zer beste modu daude gizarte zentroan eta zer lortzen dute pertsonak haiekin?



Nahiz eta rol hori aitortzea garrantzitsua izan, bestelako funtzioak ere agerian jarri behar dira, aisialdiko eta entretenimenduko jardueren ahalmena arinkeriaz ez hartzeko eta gutxieteko. Izan ere, kasu askotan, aisialdi hutsekoak diruditen jarduerak funtsezko zeregina betetzen dute harreman sozialei, autonomiari eta osasunari eusteko.

Laguntza, zaintza komunitarioak

Jarduera gehienak aisialdikoak izateak ezkutatu egiten du zentroen rolik esanguratsuenetakoa: **zaintza komunitarioetarako guneak dira, non berdinen arteko laguntza sare bat sortzen den, modu informal eta naturalean.**

Alde batetik, zentro gehienak asoziatiboak direnez, adinekoek jarduerak sortu eta baliabideak kudea ditzakete beren borondatez, beste adineko batzuei aukerak emateko; hau da, berdinen arteko laguntza formal eta nabariagoa sortzen da.

Horixe bera egiten dute **boluntarioritza** ekintzetan parte hartzen duten adinekoek, edo beraiek zuzentzen eta dinamizatzen dituzten jarduerak martxan jartzen dituztenek.



Baina, beste alde batetik, adinekoen arteko eguneroko harremanak laguntza informala naturaltasunez sortzea ahalbidetzen du: teknologia berriekin laguntzea, hitzorduetara laguntzea, paseatzera joatea, premia egoerak detektatzea, gaixotasun egoera puntualetan laguntzea...



Adierazi behar da zentroen barruko zaintzak indar handiagoz aipatu direla zentro horietako adinekorik gazteenen diskurtsoetan; izan ere, pertsona horiek oso rol aktiboa izaten dute zentroetako bizitzan, eta uste dute adineko zaharragoei lagundu egiten dietela, haien ongizaterako pentsatutako ekintzak eta jarduerak diseinatuz eta martxan jarritz, edo eguneroko bizitzan behar duten laguntza emanez.

Beraz, aitortu egiten da zentro barruko belaunaldiarteko elkartasunaren bidez batzuek besteei laguntzeko rol hori.

Garrantzitsua da funtzio hori agerian jartzea, aisia eta jolas jarduerari esanahi handiagoa emateko, eskuarki eguneroko harremanetan eta harreman naturaletan sortzen baitira, berez, laguntzak.



Ingurunearen dinamizatzailea

Hainbat modutan gauzatzen du zentroak **ingurune**ko **dinamizatzailearen** rola: jarduerak eta parte hartzeko hainbat modu sortzen ditu auzoan edo herrian, harremanak sortzen laguntzen du auzoan, ekintza komunitarioak antolatzen ditu kalean eta abar.

Rol hori bereziki azpimarragarria da landa inguruneetan, haietan zentroa herriko gainerako elkarte edo eragileekin koordinatutako **aktibismo gunetzat** ere har baitaiteke.

Orobat, aipatzekoa da zenbait adinekoren **errutinak** zentroko jarduera agendak **egituratzen** dituela. Horixe ondorioztatu zen konfinamenduetan zentroak itxi zirenean —hainbat ikerketak eta proiektuk itxieraren eragina jaso zuten—.


Beste rol batzuk...

Zerbitzu bideratzailea

Zentroetan dinamizatzaile profesionalak edo gizarte langileak daudenean ikusten da rol hori, bereziki.

Pertsonen baliabide eta zerbitzu soziosanitarioei buruzko orientabidea ematea da rol horren oinarria, betiere identifikatutako premiei jarraikiz. Horretarako, garrantzitsua da herrian zer baliabide eta zerbitzu dauden dakien profesional bat egotea, eta pertsona horrek zentroan parte hartzen duten adinekoekin harreman jarraitu eta hurbila izatea.

Nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela hurbileko baliabideetan rol potentzial hori egotea, eta adinekoen eguneroko bizitzan ezaguna eta ohikoa den pertsona batek betetzea; izan ere, herritarrak gizarte zerbitzuetatik urrun daude, oro har, eta horrek zaildu egiten du larrialdien aurreko uneetan zerbitzuak erabili ahal izatea.



Premia egoeren radarra


Profesionalik ezean, zentroaren kudeaketan aktiboak diren pertsonen eta udal erreferenteen artean eguneroko harremana badago, ohikoa izaten da **premia egoerak identifikatzea** (narriadura kognitiboa, bakardadea, depresio egoerak...). Aurkitu bezain pronto, udalari jakinarazten zaizkio, arreta eman diezaien.

Rol hori nabarmenagoa da landa inguruneetan, askotan haietan harreman handiagoa baitago bi eragile horien artean.

Zentroen eta funtzioen adibideak

Erreferente desberdinak izatea lagungarria izaten da errealitate desberdinak ezagutzeko; horri esker, ez gara ezagutzen dugunera mugatzen, eta hainbat aukera izaten ditugu eskura. Beste zentro batzuetan zer definizio eta funtzio dauden jakinez gero, hobeto zehaztuko dugu zer alderdi interesatzen zaizkigun eta zeinetatik aldendu nahi dugun.

Helduak Zabaltzen programan egindako pilotajeetan, gizarte zentroek beren funtzioei eta asmoari buruz egin zuten gogoeta, eta hauek izan ziren ondorio nagusiak:



Eibar

Zentrook Eibarko **adinekoei zuzenduta daude**, batez ere, eta **haien beharrei eta interesei erantzutea** dute xede. Halere, **herritar guztiek erabil ditzakete**; izan ere, aukera dute belaunaldiarteko jardueretan eta beste elkarte eta baliabide batzuekin elkarlanean egindako ekintzetan parte hartzeko eta ematen diren zerbitzuak baliatzeko.

Hauetako dira haien funtzio nagusiak:

- **Jarduerak eskaintzea; honela sailkatzen dira:**
 - Aisialdiko eta entretenimenduko jarduerak
 - Jarduera kulturalak
 - Jarduera fisikoak
 - Prestakuntza (teknologia berriak)
 - Ahultasunaren prebentzioa
- **Harremanetarako espazioa izatea, gizarte isolamendua prebenitzea.**
- **Pertsonei laguntzea:**
 - Bakardade egoeran
 - Eguneroko jardueretan aholkatzea (Osakidetzan, bankuan, informazioa behar dutenean...)
 - Antena edo radar gisa jardutea, zaurgarritasun egoerak detektatzeko
- **Zerbitzu merkeagoak eskaintzea.**
- **Adinekoei eta/edo gizarte zentroeiei lotutako estereotipoak haustea.**

Erudio

Udalerriko adinekoen beharrei erantzuteko zentroa. Jardueraren zati handi bat autokudeaketan oinarrituta gauzatzen du, udalaren eskaintza osatuz eta beste eragile batzuen ekintzetan lagunduz. Adinekoek laguntza sare sozial bat izatea eta bizitza komunitarioan parte hartzea du helburu. Hona hemen haren funtzio nagusiak:

- **Adinekoentzako jarduerak eta zerbitzuak eskaintzea**
- **Harremanak sortzea eta aurretik daudenak erraztea.**
- **Nahi gabeko bakardadeari aurrea hartzea**
- **Zerbitzu merkeagoak eskaintzea.**

Arratzu

Eragile komunitarioa, batez ere adinekoen beharrei erantzutera bideratua —administrazio publikoaren osagarri—, hainbat belaunaldiren parte hartzearen bidez eta inguruko beste eragile batzuekin lankidetzan arituz.

Funtzio nagusi hauek identifikatu ziren:

- **Belaunaldien arteko harremanak bultzatzea.**
- **Beste elkarte eta baliabide batzuekin eta administrazio publikoarekin lankidetzan aritzea**
- **Zentzu komunitarioa zaintzea.**
- **Jendea elkartu ahal izateko gune izatea.**
- **Arratzuko adinekoen beharrak boluntariotzaren bidez asetzea.**
- **Adinekoentzako jarduerak antolatzea.**
- **Adinekoei eragiten dieten aldaketak ulertzen laguntzea.**

Beste zentro batzuk

BIZAN (Gasteizko adinekoentzako gizarte zentroen sarea)

Gasteizko Udalaren 16 gizarte zentroz osatutako sarea da Bizan. Zentrook 60 urtetik gorako pertsonentzat dira, bai eta haien ezkontide edo bikotekideentzat ere, nahiz eta adinaren baldintza ez bete.

Zentroak jarduera batzordeen bidez kudeatzen dira; kudeaketa eredu hori aitzindaria da erabiltzaileen parte hartzearen sustapenari dagokionez.

Harremanetarako eta parte hartzeko topaguneak dira. Askotariko jarduerak daude egunero, gustu guztietarakoak: ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak, haur eta gazteekin egiteko jarduerak, emanaldiak, ospakizunak eta abar. Gasteizko zahartze aktiboaren aitzindaria da BIZAN.

Informazio gehiago:

<https://bit.ly/3QB4AVv>



Convive zentroak

Nafarroako Kutxa Fundazioaren 9 gizarte zentrok osatzen dituzte Convive zentroak —Iruñean eta Zangozan daude—. Haien helburua da adinekoei hobeto bizitzen laguntzea, parte hartzearen bidez elkarbizitzarako gune bat sortuz. Gune horrek alderdi guztietan lagundu behar die pertsonei: bakardadea prebenitu eta arindu behar du, jarduerak eskaini behar ditu (olgetarakoak, kulturakoak, etengabe ikastekoak, osasuna sustatzekoak...) eta beste premia batzuetarako erantzunak eskaini behar ditu.

Informazio gehiago:

<https://bit.ly/3ByiPGh>





Asturiasko Printzerriko adinekoen gizarte zentroak

Komunitateari irekitako baliabide gerontologikoak, zahartze aktiboa sustatzeko funtsezko misioa dutenak.

Zentro horiek komunitate batean bizi diren adineko guztientzat dira, eta haien garapen pertsonala, bizikidetzaz eta parte hartze soziala sustatzea dute xede. Horretarako, hainbat zerbitzu eta programa eskaintzen dituzte.

La Caixa Fundazioaren espazioak

Adinekoentzako gizarte zentroen sarea, La Caixa Fundazioarena. Zentro horiek ikasteko, interakziorako eta komunitatearekin konektatzeko eremuak dira, zahartzearen etapa guztietara bideratuak, eta ikaskuntza, sormena eta parte hartzea sustatzen dute.

Horietan, osasuna eta ongizatea sustatzeko lantegiak egiten dira, bai eta **personen artean lotura** sendoak sortzen laguntzen duten jarduera komunitarioak eta gainerako ekimenak ere.

Ahalaber, **boluntariotza programen** garapena sustatu nahi da, bai programa propioen bidez, bai beste erakunde batzuen ekimenak baliatuz, betiere inguruko beste zentro, talde edo eragile batzuen arteko harremanak bultzatuta.

Horrelako zentroak **hurbiltasun tresna** ezin hobea dira, adinekoen **bazterkeria prebenitzeko, isolamenduaren eta bakardadearen aurka egiteko** eta sor daitezkeen **zaurgarritasun egoerei erantzuteko**.

Informazio gehiago:

<https://bit.ly/4iqaMvV>



Ariketak

1. ariketa

Zuen zentroaren oraina eta etorkizuna birpentsatzeko, hauxe da lehen pausoa: denen artean hausnartzea zein den zentroaren asmoa. Kontua da zuen iritzian zuen zentroa definitzen duten funtsezko alderdiei buruz eztabaidatzea. Hausnarketa eta erabaki horiek hurrengo pausoetarako oinarria izango dira.

Zerk definitzen du gure zentroa?

Nola azalduko zenioke norbaiti zer den gure zentroa eta zertarako balio duen?

Zein dira gure zentrorako nahi ditugun balioak?



Gogoan izan: Gizarte zentroan presentziarik handiena dutenei eta gehien parte hartzen dutenei galdetzea bezain garrantzitsua da, zentrora erakarri nahi genituzkeen beste profil batzuei, udalaren ordezkariari eta bestelako eragileei ere galdetzea.

2. ariketa

Definizioa eta izena aztertu ondoren, garrantzitsua da zentroak gure gizartean dituen funtzioei, rolei eta zereginari buruz hausnartzen jarraitzea. Ildo horretan, gure zentroaren rola identifikatzen laguntzeko, komenigarria da galdera hauek egitea bai geure buruari eta bai beste eragile batzuei:

Zertarako etortzen dira pertsonak gure zentrorara?

Ondo pasatzeaz eta kultura, ikaskuntza eta osasuna sustatzeaz gain, zer lortzen dute jarduera horietan parte hartzen dutenek?

Zer beste modu daude zentroan parte hartzeko eta zer lortzen dute pertsonak haiei esker?

Jarraian, Helduak Zabaltzen proiektuan maizen agertu diren ideia mugatzaile edo beldur batzuk azalduko ditugu. Azalpena ez ezik, ideiei heltzeko modu bat emango dugu, horri buruzko hausnarketa bultzatzeko.






**Zer erresistentzia
eta beldurrek
oztopa dezakete
eraldaketa?**

Erresistentziak eta beldurrak

Eraldaketa ororen aurrean, erresistentziak sor daitezke aldatuko den horretan parte hartzen duten pertsonengan. Kasu honetan, AGZen eredu aldaketak erresistentziak eta beldurrak sorraraz ditzake, bai zentroan parte hartzen duten adinekoengan, bai elkarteko batzordearengan, bai udalarengan...

Askotan, ideia edo sinesmen mugatzaileen ondorio dira erresistentzia horiek, eta modu batean baino gehiagotan ager daitezke. Eraldaketa aurrera egitea oztopa dezakete ideia horiek, zaildu egiten baitute egungoak ez diren beste funtzionatzeko aukera edo modu batzuk aintzat hartzea.

Jarraian, Helduak Zabaltzen proiektuan maizen agertu diren **ideia mugatzaile edo beldur batzuk azalduko ditugu**. Azalpena ez ezik, ideiei heltzeko modu bat emango dugu, horri buruzko hausnarketa bultzatzeko.



“Udalaren eginkizuna handitzen bada edo profesional bat sartzen bada, zentroek utzi egingo diote adinekoek autokudeatuak izateari”

Gizarte zentroetan eraldaketa prozesuak daudenean, birpentsatu egin behar dira esku hartzen duten eragileen rola. Rola, zereginak, funtzioak eta abar berrikusten badira eta birbanatu behar ote diren aztertzen bada, boterea edo autonomia galduko dutela pentsa dezakete zenbait pertsonak.

Hala ere, berrantolaketa horrek ez du beti boterea galtzea ekartzen, eragileen arteko harreman desberdinak baizik. Hain zuzen ere, dinamizazio arloko profesionalen zeregina eta zentroko adinekoek egiten duten kudeaketa ez dira bateraezinak, eta elkarrekin kudeatzeko eta udalerraren errealitatera hobeto egokitzen diren erabakiak hartzeko balaia daiteke berrantolaketa; izan ere, aukera ematen du beste eragile batzuekiko edo komunitatearekiko lotura ahalbidetzeko, kudeaketa jakin batzuk errazteko, bitartekotza egiteko eta, batez ere, parte hartzea sustatu eta bideratzeko.



Nola egin diezaiokegu aurre ideia horri?

- Adineko pertsonen **parte hartzeko hainbat modu** eskaintzeari esker, zentroak osorik kudeatu beharrik gabe goberna daitezke AGZk —erantzukizunak eta kargak banatuz—. Gainera, profil desberdineko pertsonen parte hartzea bultzatzen da horrela.
- Zentroetan profesionalak sartu aurretik, beharrezkoa da haien funtzioak **esplizituki azaltzea**, gatazkarik ez sortzeko, botere galerarekin lotutako sentimenduak gutxitzeko eta hasieratik elkarlana sustatzeko.
- **Beste eredu batzuen datuak erakustea** —zentroak kudeatzeko beste modu batzuen adibide gisa— onuragarria da, alde onak nabarmentzeko eta hobekuntza horiek zentroan nola ezar daitezkeen aztertzeko.
- Orobat, kudeaketa desberdina duten zentro **eredu desberdinetako adinekoak harremanetan jartzea** oso ona da ikaskuntzak jasotzeko.

“Batzordea eta batzarrak dira kudeaketa modu bakarra”

Zentroko bizitzan parte hartzen duten pertsonen aniztasuna dela eta, zaila da zentroaren kudeaketarako formula bakarra onartzea.

Urte batzuetatik hona, krisi orokorra nabari da elkartearen batzordeak eta bazkideen batzarrak oso-osorik kudeatzen dituzten zentro ereduetan.

Krisi hori hainbat arrazoirengatik gertatu da; hona hemen batzuk:

- Pertsona gutxi erantzukizun karga handia dute eta ez dute ordezkatuko dituenik.
- Elkarteko pertsona askok beste interes batzuk dituzte, eta ez dute denbora libre asko; beraz, ez dute nahi izaten hainbeste denbora eskatzen duen kudeaketa batean parte hartu.

- Bertikaltasunak eta hierarkiak pertsonak urruntzea eragiten dute, eta ez datoz bat zentroan parte hartzen duten pertsonen errealitatearekin, ez eta premiekin ere.
- Zentroan parte hartzeko modu edo aukera gutxi dago, eta bazkideen profilak, berriz, askotarikoak dira.




- **Parte hartzeko eta kudeatzeko eredu berriak** aztertu beharra dago, zentroko bizitza kudeatzeko beste modu batzuk nola ezar daitezkeen baloratzeko, betiere zentroko errealitatea eta premiak aintzat hartuta.
- Zentroan parte hartzen duten **pertsonen aniztasuna eta kopurua** kontuan hartu behar dira. Horretarako, hausnartu egin behar da ea egungo kudeaketa modua profil guztietara egokitzen den eta denei entzuten dien.

“Jendeak ez du inolako konpromisorik hartu nahi”

Zentroan gauzatzen diren zeregin edo gestioekiko konpromiso maila izugarri alda daiteke pertsona batetik bestera, eta garrantzitsua da konpromiso maila guztiak baliozkoak direla onartzea.

Gainera, zentroan parte hartzen duten adinekoen aniztasuna kontuan hartuta, are beharrezkoagoa da konpromiso eta partaidetza modu guztiak ulertzea; hau da, pertsonen interesak, denbora librea, premiak edo errealitateak oso desberdinak badira, nola egin daiteke zentroarekin konpromisoa hartzeko modu bakarraren alde?



Nola egin diezaiokegu aurre ideia horri?

- **Bitarteko partaidetzako moduak** sustatuz gero, hainbat konpromiso maila egongo dira, eta pertsonak erosoago sentituko dira; hau da, aukera izango dute, benetan nahi edo ahal dutena baino zama handiagoa beren gain hartu gabe konprometitzeko.
- Konpromisoa hartzeko prest daudela adierazten duten pertsonari entzun behar zaie, baina hori bezain garrantzitsua da kontrakoa adierazten dutenei ere entzutea. Horretarako, ezinbestekoa da **komunikazio eta kontsulta guneak** sortzea.

“Aldatzeak aurreko guztia ezabatzea esan nahi du”

Beste zentro eredu batera aldatzeak ez dakar berekin zentroan gertatzen den guztia desagerraraztea, nahi dena lortzeko pausoak ematea baizik.

Eraldaketa prozesu bati ekin aurretik, gomendagarria da aurrena diagnostikoa egitea; alegia, zentroa nolakoa den eta han gertatzen den guztia zehaztea. Hasierako fase horretan, hauek ere lotu behar dira: batetik, hobetzekotzat hartzen diren alderdiak eta, bestetik, egin nahi den eraldaketarekin bat datozenak.

Azken horiek —zentroan lortu nahi denaren antza duen eta, beraz, ondo funtzionatzen duen oro— ez dago zertan desagerrarazi. Izan ere, ondo funtzionatzen ari denaren eta zentroko adinekoentzat egokia denaren balioa nabarmentzea abiapuntu egokia da, hobetzeko modukotzat jotzen diren beste arlo batzuk eraldatzen hasteko, aintzatespena eta motibazioa sustatzen ditu eta.



Nola egin diezaiokegu aurre ideia horri?


- Zerk funtzionatzen duen eta zerk ez —zentroaren premietatik edo lortu nahi den zentro idealetik urrunen dagoena— aztertu ondoren, **ondo funtzionatzen duenari eutsi** egin behar zaio —eta balioa nabarmendu—, bai eta **berria gehitu** ere, hobetzeko balio duena, alegia.
- Egiten den aldaketa orotan, beharrezkoak dira **konfiantza eta pilotaje aldi** bat; hots, aldaketak ez dira atzeraezinak, eta probatu egin behar dira, egokiak izan diren ala ez egiaztatzeko.

“Udalarekiko harremanak baliabidez hornitzeko baino ez dira”

Zentroak bere kudeaketan parte hartzen duten eragileekin (dinamizatzailearekin, udalarekin...) duen harremana aztertu beharreko faktoreetako bat da, zentroaren funtzionamendua balioesteko orduan.

Harreman horiek hainbat modutakoak izan daitezke, eta, aldi berean, beste faktore batzuek ere baldintzatu ditzakete; esaterako, harremanaren beraren historiak, zentro edo udal motak, batzuen eta besteen artean lotura lana egiten duten pertsonek...

Hala ere, harreman horrek ez du zertan beti oinarritu unean uneko arazoak konpontzean edo baliabideak ematean; aitzitik, harremana harago joan daiteke —elkarrekikoa edo noranzko bikoia izanez—, alderdi guztiak pozik egon daitezen eta harremanaren onurak edo abantailak ahalik eta handienak izan daitezen.




- Zentroa bezerotzat hartuz gero, harremana ahuldu egin daiteke, eta alderdien arteko distantzia handitu. Harremana birpentsatu eta **elkarrekikotasun handiagoz** hornitzea ona da komunikazioa eta elkarrekiko konfiantza hobetzeko.
- **Antzeko beste esperientzia batzuk aztertu** eta haietatik ikaskuntzak ateratzea lagungarria da, zentroaren eta beste eragile batzuen arteko harremanetan funtzionatzeko beste modu batzuk badaudela ulertzeko.

“Beste belaunaldi batzuk sartzen badira, zentroak adinekoentzat izateari utziko dio”

Erabiltzaileek ez lukete mehatxutzat hartu behar gizarte zentroko bizitzan beste pertsona batzuek parte hartzea, baizik eta zentroak komunitatean duen eragina indartzeko eta bestelako harremanak sustatzeko aukeratzat.

Gainera, komunitatera irekitzea da gizarte zentro gehienen helburu nagusietakoa, eta komunitatean eragile eta erreferente izatea. Helburu horrek lotura estua du beste harreman mota batzuk sustatzearekin; besteak beste, belaunaldien artean sortzen diren harremanak.



Nola egin diezaiokegu aurre ideia horri?


- Ideia mugatzaile horren aurrean, geure buruari galdetu beharko genioke **nor hartzen dugun adinekotzat**, ba ote dagoen aurrez ezarritako adin mugarik. Hausnarketa horrek begirada zabaltzea ekar dezake; batetik, balizko adinkeria desagerrarazteko eta, bestetik, adin desberdinetako pertsonen arteko harremanak bultzatzeko, adinekoak izan ala ez.
- Zentroetako gune batzuk **beste belaunaldi batzuetako pertsonak** erabiltzen dituzte sarritan, eta haien presentzia ez da zalantzan jartzen, oso ohiko bihurtu baita. Adibidez, kafetegia izaten da gune horietako bat; udalerrri askotan, zainzaileak, senitartekoak eta herriko beste pertsona batzuk ere joaten dira gune horretara. Hau da, ez dira adinekoentzat soilik. Egia da jarduera edo zerbitzu batzuk adinekoentzat izaten direla bereziki, baina horrek ez du esan nahi zentroa beste adin batzuetako pertsonak ere erabiltzen ez dutenik.
- **Belaunaldien arteko harremanak** sustatzea zentro askoren helburuetako bat izaten da, eta horretarako jarduerak edo proiektuak antolatzen dituzte noizean behin. Beraz, zentroko esparruak beste adin batzuetako jendeari zabaltzea harreman horiek errazteko modu bat da, ez baitira aldizkako ekintzen bidez soilik sustatzen.

“Adinekoen elkarteko zuzendaritza batzordeak zentroko erabiltzaileen aniztasuna ordezkatzan du”

AGZen ohiko elkartze ereduak bazkideek batzarrean bozkatutako zuzendaritza batzordeak ordezkatzuta egoten da.

Arestian esan bezala, gaur egun krisian dago eredu hori —erreleborik eza, karga eta erantzukizun handiak, hierarkia...—, eta, ondorioz, ereduaren ordezkagarritasunari buruzko gogoeta egiteko unea da.

Batzordea pertsona talde batek osatzen badu ere, ez dira beti zentroan parte hartzen duten pertsonen profil guztiak ordezkatzuta egoten. Gerta liteke profil jakin bateko pertsonak osatzea batzordea —aniztasuna ordezkatu gabe—, eta, beraz, zentrorra joaten diren pertsona guztien premiak ez ezagutzea.



Nola egin diezaiokegu aurre ideia horri?



- Ideia horri aurre egiteko, ariketa hau egin daiteke: **zentroan parte hartzen duten pertsonak nor diren** aztertu eta haien interesak eta beharrak nola jasotzen diren ikusi.
- Bestalde, zentroan parte hartzeko eta erabakiak hartzeko beste modurik dagoen azter daiteke, profil guztien partaidetza sustatzeko bideak bilatze aldera.

Eta, orain?


Dagoeneko ezagutu ditugu AGZek eraldatzeko dituzten erronka batzuk, eta ezagutu ditugu aldaketa horrekin bat egin duten beste udalerrri batzuen esperientziak. Orain, horrenbestez, azken gogoeta bat jarri nahi dugu mahai gainean:

Gai gara gida honetako hiru kapituluaren izenburuek planteatzen dituzten galderei erantzuteko? Zalantzarik gabe, galdera horien erantzunek lagunduko dute zentro bakoitza eraldatzeko bidea zehazten.

Zer dira adinekoen gizarte zentroak?

Zer funtzio betetzen dituzte zentro horiek?

Zer erresistentzia eta beldurrek oztopa dezakete eraldaketa?





Bibliografia eta gomendatutako irakurgaiak

Bibliografia

- ALMAZÁN GOICOECHEA, N., BERRIOS PRIETO, E., FERNÁNDEZ CORDERO, L., MOGOLLÓN GARCÍA, I. eta TOMASENA LASA, A. (2023). «Adinekoen Gizarte Zentroak eraldatzeko bidean». *Actas de Coordinación Sociosanitaria*, (33), pp 12-39.
- BIZAN. Gasteizko adinekoentzako gizarte zentroen sarea. <https://bit.ly/3DjM2Fp>
- CONVIVE ZENTROAK. Guía para conseguir los Centros que queremos. <https://www.fundacioncajanavarra.es/discapacidad-y-mayores/centros-convive-personas-mayores/guia-centros-convive.pdf>
- HELDUAK ZABALTZEN (2022). Estudio diagnóstico inicial de La Situación de los Centros Sociales de Personas Mayores en Euskadi. <https://bit.ly/4mNOKFy>
- HELDUAK ZABALTZEN (2022). Udalerrien arteko topaketa teknikoaren memoria. <https://bit.ly/4jBXdJe>
- HELDUAK ZABALTZEN (2023). «Landa-elkarrizketak» ikerketa. <https://bit.ly/43UNs31>
- IMSERSO (2021). Servicios Sociales dirigidos a personas mayores en España. 2021eko abendua. Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua (imserso.es)
- MARTÍNEZ, A., MAÑOS, Q., PINAZO, S., CALVO DE MORA, M. y VOLPE, M.T. (2014). “El papel de la Educación Social en la Promoción del Envejecimiento Activo y la Acción Social Intergeneracional. mahai-ingurua. Gizarte Hezkuntzaren VI. Estatuko Kongresua: hitzaldiak. RES: Revista de Educación Social 18: 2.

Eraldaketarako gidak



<https://bit.ly/3G8117f>

Helduak Zabaltzen

GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

ASMOA

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OSKIDATE, GAITHERIA ETA ERROKHA DEMOKRATIKOAREN SALA DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y FETO DEMOCRATICO

<https://bit.ly/4k2ultD>

Helduak Zabaltzen

GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

PERTSONAK

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OSKIDATE, GAITHERIA ETA ERROKHA DEMOKRATIKOAREN SALA DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y FETO DEMOCRATICO

<https://bit.ly/3HBW5YF>

Helduak Zabaltzen

GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

PARTAIDETZA ETA GOBERNANTZA

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OSKIDATE, GAITHERIA ETA ERROKHA DEMOKRATIKOAREN SALA DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y FETO DEMOCRATICO

<https://bit.ly/3SZHN6M>

Helduak Zabaltzen

GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

KOMUNITATEA

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OSKIDATE, GAITHERIA ETA ERROKHA DEMOKRATIKOAREN SALA DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y FETO DEMOCRATICO

Lan-tresna gehigarriak



<http://bit.ly/4mxO9a8>



ALDAKETARAKO AUTODIAGNOSTIKO TRESNA



<http://bit.ly/45I6W1j>



GIZARTE ZENTROAK ERALDATZEKO TRESNAK

JARRAIBIDEAK



<http://bit.ly/4m3uIGh>



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO